

2. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

EGUNAK	Moodle plataforma zabalik: apirilak 4 – maiatzak 5 Zoom bidezko saioak: apirilaren 6n eta maiatzaren 3an	IKASGELA/ TOKIA	Jardun bikoa: Moodle eta Zoom
IRAUPENA	15 ordu	ORDUTEGIA	Zoom bidezko saioak: 09:00 - 12:00
ESKATZEKO AZKEN EGUNA	Martxoak 11	ONIRITZI EPEA	Martxoak 14 -18
IKASLE KOPURUA	15 gehienez	NORENTZAT	EAEko herri-administrazioetako langileentzat
IRAKASLEA	AEK	BETE BEHARREKO BALDINTZAK	B1 maila izatea

ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU
OROKORRAK**

2. HEko iritzi-artikuluak sortzen trebatzea.
Ebaluazio-irizpideak ezagutzea.

**HELBURU
ZEHATZAK**

- Ikasleak testua sortzeko prozesu osoa ezagutzea: ideiak antolatzen testua ebaluatzeraino.
- Prozesuan sortuko diren zalantzei erantzun praktikoa ematea.
- Ebaluatzeko erabiltzen diren kontzeptuak ezagutzea (koherentzia, kohesioa, ...) eta sortuko duten testura zelan eraman lantzea.

GAITASUNAK

Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da bere lan-esparruko eta hainbat gai ezagunei buruzko testuak sortzen dituenean, sistema jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.



2. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehenetasuna.
- Zoom bidezko bi saioetan ikastaroaren aurkezpena eta ildo nagusiak landuko ditugu, eta ikastaroan sortu ahal diren zalantzei erantzuna emango diegu.
- Lineako unitate bakoitzean testua sortzeko tresnak landuko ditugu eta irakasleak proposatutako ariketak egin beharko dira.
- Azken fasean testu osoa ebaluatzeko tresnak landuko dira eta nork bere testuen ebaluazioa eginda, irakaslearena jasoko dute.

PROGRAMA

Ikastaroa apirilaren 4an hasiko da, Zoom bidezko saioak apirilaren 6an eta maiatzaren 3an izango dira.

1. unitatea

- Aurkezpena: 2. HE, zer da?
Zein hizkuntza eredu erabili behar da?
Azterketa eredua.
- Iritzi-artikuluak: Eredua bat aztertu: edukia/forma.
Oinarriko kontzeptuak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.
Nola sortu iritzi-testu bat?, nola esan?
- Lan taldeak sortu.
- Azterketetan egiten diren akats ohikoenak.

Apirilaren 6an, Zoom bidezko 1. saioa: lehenengo unitatean egindakoak

2. unitatea: ZER ESAN

Eskatutakoaren garrantzia: nork, nori, zer, nola...
Iritzia nola formulatu.
Informazioa lortu / Ideiak bildu.
Egokitasuna.

3. unitatea: IDEIAK ANTOLATU

Koherentzia.
Kohesioa.
Konexioa.

4. unitatea: ESKEMA

Paragrafoa
Lexikoa
Aberastasuna

5. unitatea: TESTUA SORTU

Zoom saioan proposatutako testua idatzita ekarriko dute.
Berrikusteko teknikak eta akats ohikoenak landuko dituzte.
Testua berridatziko dute.
Testuaren balorazioa.



2. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

6. unitatea: maiatzaren 3an, Zoom bidezko 2. saioa

Aurreko unitateetan egondako zalantzak argitu.
Denon artean eskema egin.
Proposatutako testua sortu eta baloratu.
Sortutako zalantzei erantzun.

7. unitatea: Aurreko moduluetan atalka landutakoa oinarri hartu eta gai batzuk emanda, iritzi-testu osoak idatzi. Irakaslearen balorazioa jaso. Testu bat, behintzat, idatziko dute.

EBALUAZIOA

Ebaluazioaren helburua: Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.

Ebaluazioak jaso beharko du: Ebaluaketa egiteko saioetan eskatuko diren ariketak eta azken moduluko testua neurtu eta baloratuko dira.

**IKASTAROAREN
BALORAZIOA**

- Irakaslearen gogobetetze inkesta.
- Irakaslearen balorazio inkesta.

APROBETXAMENDUA

Bete beharreko baldintzak:
Zoom bidezko saioak: % 80ko bertaratzea.

Lineako saioak:

- Zereginen % 80 egitea eta irakasleak ontzat ematea.
- Azken unitateko zeregina egitea ezinbestekoa izango da.

ZIURTAGIRI DIGITALA

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotzen duzunik aurrera. *IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartu.

**BAJA
EMATEKO
EPEMUGA**

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

128 €

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.

